

Eskola-ume: Armada ingelesak behar zaitu

Iraken jasaten dituen muturrekoek adorea ahulduta, Britainia Handiko armada jende faltan dabil azken aldian. Non hasi bokazio berrien bila? Antzina apaiz eta fraideak ibiltzen ziren moduan seminarioetarako haurren xerka, militar ingelesak ere eskola-umeen artean hedatzen dute sarea.

PRESTON-GO DUKE OF LANCASTER

Errejimentuaren kasernara 38 gaztetxo iritsi dira autobusez. 14-16 urteko neska-mutikoak. Beraiekin datozen lau irakasleen ustez, umeetako batzuk gatazkatsua dira, eta lasaiagoak diren besteak eskoletan ez dabilta oso ondo. Nick Froehling ofiziala, aldiz, gaztea da eta atsegina. Laster eman dizkie SA80 fusilak gaztetxoei eta horiekin ariketak egiten jarri ditu. Honela hasi du “Britainiarren haur-armada” erreportajea Stephen Armstrong-ek *New Statesman* aldizkarian.

Armstrong ikerketa-kazetariak hurbiletik aztertu du nola biltzen dituzten soldadugai berriak militar britainiarrek, eta horren emaitza eskaini du “Britain’s child army” artikuluan. Hasieran kontatzen duen bisitan, 38 gaztetxoak ikusi ditu soldaduek egiten dituzten entrenamendu ariketak burutzen –hormetan gora eskalatu, oztopoak gaingitu, kilometro eta erdiko korrika saioa, eta abar– eta bukaeran J. Pitt teniente-koronelak diploma bana eman die, zera daramana idatzita: “Zorionak Armadako Personal Garpenerako egun bateko Ikastaroa arrakastaz burutu duzulako”. Dominekin batera armadari buruzko DVD bana eta gaztetxoentzako militarrek hiruhilabetero egiten duten *Camouflage* aldizkariak ere banatu dizkiete.

Kazetaria ohartu da gaztetxoen arteko bik behintzat soldadu izatea

erabaki dutela. Hamasei urte dauzka Carak eta honek Armstrongi esan dio: “Soldataz hitz egin digute, eta iruditu zait kobratuko dudala nire lehengusu guztiek baino gehiago. (...) Behar baino lodixeago egongo nintzela uste nuen, baina egin ditugun ariketak ez zaizkit gogorregiak iruditu”. Luke-k 14 urte ditu eta zalantza gehiago: “Nik hasieran gerrara joatea nahi nuen, baina maisuak esan dit hobe nukela hau ofizio bat ikasteko aprobetxatzea”.

14 urteko gaztetxoak bereganatu nahi dituen armada batek herrialde gatazkatsu bateko kontua dirudi, Afrikakoa edo. Baina kontua da Britainia Handiko armada ere jendez larri dabilela, are larriago Irak eta Afganistanen muturra sartu zuenetik. 2006an 14.000 militarrek utzi zuten armada eta ordainetan 12.000 berri baino sartu ez. Aurtengorako, 8.500 soldadu berri erakartzeko helburua dauka ejertzitoak, baina nekez lortuko du. Krisi honetaz gero eta ozenago mintzo dira jeneral britainiarrak berak, eta baliabideak kontuan hartu gabe Tony Blairrek gerra arriskutsuetan sartu dituela kritikatu dute.

Ekonomiaren beroaldiak ere militarren jende beharrei ez die laguntzen, antza denez. Enpleguak lortzea aspaldiko errazena omen dago Ingalaterran, eta urtero errekruta berrien iturri oparoak ziren zonalde asko –histori-

Britainia Handiko ejertzitoak betidanik zaindu du soldadu berriak inguratzeko propaganda, ezkerreko irudian ikusten denez: XX. mende hasierako afixa horrek emakumei egiten die dei Aire Armadan izena eman dezaten.

Azken urteotan gerrarako bokazioak urritu egin direla eta, militarrek errekrutatze estrategia berria prantatu dute, gaztetxoak erakartzeko. Eskuineko bi argazkietan eskola-umeak ageri dira, jadanik espiritu militarrez kutsatuta. Goikoan, *paintball* eta beste gerra jokoak egiten ari da gaztetxo talde bat, parafernalia militarrez bezituta. Eskolaz gain, kirol zelaia eta klase honetako aisia-lekuak bisitatzen dituzte soldadugai bila dabilten ekipoek. Behekoan, kamuflaje arropaz jantzitako neskatoak dantzan ari dira, eskolako ekitaldian. Militarrek zapzi urterekin kontaktatzen dituzte gaztetxoak, ondorengo hamar urteetan Camouflage klubean armadarako zaletu daitezten.

koki langabezia handia izan dutenak –agortuta omen daude. Lan bila eta ikasketetan ari diren askok gobernua- ren diru-laguntzak dituzte, eta hori ere soldadu-chiztarien kalterako da.

Dena dela, Armstrongek dioenez, “armadak errekruten jatorri sozialaz ezer esan nahi ez duen arren, kualifikaziorik gabekoak eta langabetuak dira oraindik ere iturri nagusia”. Ofizial batek aitortu dio kazetariari soldadugai asko marjinalitatek datozkiela. Interesaturik hurbiltzen zaizkien askok izena emateko papera betetze-ko ere arazoak ditu. Beste batzuek gurasoen firma faltsutu dute, nola edo hala beren etxeetatik alde egin nahi dutelako.

7 urteko haurrei “interesa piztu”

Munduko edozein enpresak bezala, Britainia Handiko Erreginaren armada ere diru-pizgarriak eskaintzen hasi da bere militarrei lan komertziala egiteagatik: soldadugai berriak erakartzegatik. Berak animatuta gaztetxo bat soldadu sartzea lortzen duen militarrek 1.300 libra esterlinatoko –1.900 euro– “komisioa” du. Irak eta Afganistanetik datozen albiste itsusiek, eta koarteletan etorriberriei tratu txarrak ematen zaizkiela zabaldua, oparixoren baten beharra zeukaten beterrano ingeles gizagaioek.

Neurri osagarri gehiago ere badira. Lehen ezin zen soldadu sartu 26 urte



baino gehiagorekin, eta orain 33 urte arte errekrutan sar daiteke. Commonwealth-eko 54 herrialdeetako pertsonen ere atek ireki dizkie armada britainiarrak. Horrela, gaur soldadu guztien %10 atzerritarrak omen dira, tartean kontatuz 3.000 Gurkha nepaldar famatuak.

Baina British Armyk soldadu berriak nahiago ditu eskola-umeen artean aurkitu. Honetaz mintzatu zaio kazetariari David Allfrey koronela, errekrutatze estrategiaren ardurduna. Kazetariari militar adina kontsultoria bateko aholkularia iruditu zaio. “Guk eskola-umeen artean —esan dio militarrek— interesa piztu nahi dugu, eta badakigu prozesuak 10eko tartea eskatzen duela. Dena hasten da zazpi urteko mutikoak paraxutista aireko ariketa batean ikusi

eta esaten duenean: ‘Hori bai ederra!’ Une horretatik aurrera, armada saiatuko da interes hori tantaz tanta handiagotzen”.

Camouflage aldizkariak lan handia egiten du gaztetxoekin su hori bizirik atxikitzen. 13 urtetik gorako gaztetxoentzako da. Hor badituzte helikoptero eta itsasontzi modernoenen argazki *fashionak*, musika banda militarreko tixertak, kamuflajezko txalekoak, eta abar. Klub honetan izena emandakoek sarrera daukate jolas militarrek eta abenturazkoak dauzkan webgune batera. Errekrutatze ofizialak postalak bidaltzen dizkie Eguberrietan. Eta ikasketak bukatu dituztenean, armadaren eskolak ezagutzeko gonbita egingo die.

2000.ean hasi ziren militar ingelesak eskema honekin, 271.000 gaztetxoaren erreferentziak bildu dituzte

geroztik, eta dagoeneko lortu omen dute soldadu berrien %18 iturri honetatik sortuak izatea. Estrategia askoz sofistikatuagoa baita aldizkari soila baino. 17 aurkezpen talde dauzkate errekrutatze zerbitzukoek Britainia Handiko herri eta eskoletara bidaltzeko. Eskoletan armadaren meritu eta zereginak goraiatzeaz gain, erakusketak praktikoak ere egiten dituzte, hala nola mendian dabiltzan komando militarrek nola egiten duten beren otordua basoan, eta abar.

Militarrak karabana edo furgoneteekin joaten dira *paintball* kanpoetara, motoekin erakusketak egiten dituzte kirol ospakizunetan... baina eskoletan lortzen dute ehizarik onena militarrek. Hain ondo doakie eta hainbeste sartzen dute muturra eskoletan, ezen eta protestak ere pizten hasi baitira batean eta bestean. Duela gutxi Plaid Cymru alderdi nazionalistak salatu zuen Galesko eskualderik txiroenetan etengabe azaltzen direla militarrek soldadugaien bila, gunerik aberatsenetan ez bezala. Plaid Cymruk gaztetxoak errekrutatze sistema honen kontrako proposamena aurkeztu zuen Galesko legebiltzarrean, baina ez zitzaion onartu.

Liverpoolen aldiz, are urrats ausartagoak emango dituzte apiril honetan militarrek, eta errekrutatze sistemak edukiko ditu telebista interaktiboa, dokumentalak, forman egoteko webguneak, gutxiengo etnikoekin lan egiten duten teknikarien laguntza... *Camouflage* kluba hemen egingo balitz “Beti Izu” deitu beharko genioke. ■

<http://www.argia.com/nethurbil>
helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsonalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe da gure
konpromisoa.

ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624